

# Psikologiako artikuluen azterketa *Uztaro* aldizkaria oinarri harturik

**Karmele Artetxe Sánchez**

**Historian lizentziatua eta Inguma datu-basearen arduraduna**

Artikulu honetan *Uztaro* aldizkarian kaleratutako Psikologiako artikuluek aztertu ditugu. Hola, lehenik, Psikologia arloko artikuluen eta egileen deskribapen orokorra eskaintzen da, eta ondoren *Uztaro* aldizkariak Psikologia arloaren baitan izan dezakeen garrantzia edo inpaktua neurtzeko irizpide bibliometrikoak erabiltzen dira. Azterketa kuantitatiboa osatzeko, bi konparaketa egin ditugu: batean, Psikologia arloko egile euskaldunak eta espainiarak alderatuta, zenbait antzekotasun aurkitu dira, eta bestean, Psikologia eta Historia jakintza-arloak erkatu dira.

In this report we examine the articles on psychology published in *Uztaro* journal. First of all we describe the articles and the authors who deal with psychology, and then, using bibliometrical criteria, we analyse the impact of *Uztaro* journal made on the knowledge area of psychology. With the aim of completing the quantitative analysis, we add two comparisons: the first one compare the features of the basque-speaking authors with the spanish-speaking ones, having observed several coincidences among them, and the second one faces the knowledge area of psychology with the history area.

## Sarrera

Artikulu honetan *Uztaro* aldizkarian kaleratutako Psikologiako artikuluak aztertu ditugu. Hasteko Psikologia arloa hautatu dugu, Giza eta Gizarte Zientzien arloan, aldizkari zientifikoak ebaluatzeko erabiltzen diren adierazleak aplikatzeko errazena delako (aipuak, *factor de impacto* edo eragin-faktorea, batez besteko bizitza, eta abar). Aipatutako adierazleak nazioarteko adierazleak dira, edozein herrialdetako ebaluazio-agentziek edo ikertzaileek erabiltzen dituzte, bai azterketa bibliometrikoak egiteko, zein ikerketako seiurtekoak lortzeko. Neurketok oso estandarizatuta eta automatizatuta daude, ISIko datu-baseetan adibidez<sup>1</sup>. Euskarazko produkzioa ISIIn jasotzen ez denez, aipatu diren irizpideak aplikatzeko datuen bilketa-lana eskuz egin da. Bestetik *Uztaro* aukeratu dugu, Psikologia arloko artikulu gehien kaleratu dituen aldizkaria delako.

*Uztaro* aldizkaria Udako Euskal Unibertsitateak sortu zuen 1990. urtean Giza eta Gizarte Zientziei buruzko artikuluak argitaratzeko. Geroztik 54 zenbaki kaleratu ditu eta 400 dokumentutik gora. Bi euskarritan argitaratzen da, paperean eta euskarri elektronikoan ([www.uztaro.com](http://www.uztaro.com)). *Uztaro* euskarazko aldizkari zientifiko elebakarra da, aldizkari zientifiko izateko ohiko aldizkari akademikoen ezaugarriak betetzen baititu<sup>2</sup>. Azterketa honetan lehenengo 50 zenbakietan argitaratutako lanak aztertuko ditugu<sup>3</sup>, komunitate zientifiko euskaldunean eta bereziki Psikologia arloaren baitan aldizkariak izan dezakeen garrantzia eta inpaktua baloratzeko.

---

1. ISIko datu-baseetan produkzio zientifikoaren inpaktua edo eragina neurtzen da. Datu-base nagusiak hauek dira: *Science Citation Index* (SCI), *Social Science Citation Index* (SSCI) edo *Arts & Humanities Science Citation Index* (AHSCI). ISIk ingelesez eta jakintza-arlo batzuetako (Natur Zientziak, Zientzia Zehatzak, Osasun Zientziak, eta gutxiago bada ere, teknologia-arloko gaiak) produkzio zientifikoari erreparatzen dio batez ere.

2. Aldizkari zientifikoaren ezaugarriak finkatzeko, besteak beste, G. Bilbaoren lana darabilgu (Bilbao, 2004). Lehenengo eta behin aldizkari zientifikoak aldizka, modu seriatuan eta erregularitasunez argitaratzen dira. Hasieran, *Uztaron*, urtean hiru zenbaki kaleratzen ziren, 1996tik aurrera laura igo zen. Bestalde, egile ugariren ekarpena biltzen da aldizkariaren zenbaki bakoitzean. Gehienetan egileak unibertsitateko irakasleak edo ikertzaileak dira. Egileek ekoiztutako lanek (artikuluek, aipamenek edo itzulpenek) aurkezpen-arauak bete behar dituzte. Aldizkari zientifikoek bere araubidea ale bakoitzarekin argitaratzen dute. *Uztaroren* zenbaki bakoitzaren azken orrialdean aipatutako araubidea kaleratzen da. Aldizkari zientifikoek alor bat edo jakintza-multzo jakin baten inguruko lanak biltzen dituzte, horregatik bere irakurleria oso espezifikoak izaten da eta gehienetan arloko adituak dira. Erredakzio Kontseilua izaten dute aldizkariaren eduki eta kudeaketaz arduratzeko. *Uztarok* sei kidek osatutako aditu-taldea dauka, unibertsitate eta ospe bereziko erakundeetako kide direnak. Aldizkari zientifikoek aditu-talde bat izaten dute, Erredakzio Kontseiluan zuzenean parte hartzen ez duena. Adituek, artikuluen argitalpenari begira, erabakigarriak izan daitezkeen iritzia kualifikatuak ematen dizkiote Erredakzio Kontseiluari. *Uztaroko* Erredakzio Kontseiluko kideek bakoitzaren arloko artikuluen errebisioa egiten dute, eta behar den guztietan, dagokion arloko sailburuari iritzia eskatzen diote, baita UEUtik kanpoko adituei ere. Maiz, aldizkari zientifikoek editorea daukate. *Uztarok* editorerik ez duen arren, zuzentzailea badu, artikuluen orrazketa egiteko.

3. *Uztaro* aldizkariak 0-50. zenbakietan 412 dokumentu argitaratu ditu, horietatik 345 artikuluak izan dira, 57 HAA erakoak (4 hitzaurre eta 53 liburu-aipamen) eta 10 itzulpen. Jakintza-arlo batzuei buruzko lanak ugariagoak dira besteei buruzkoak baino. Psikologiarekin batera (43 artikulu) honako jakintza hauen inguruan argitaratu da lan gehien: Kazetaritza (46 art.), Ekonomia (46 art.) Hizkuntzalaritza-Filologia-Literatur kritika *tandema* (51 art.) eta Historia-Historiaurrea (38 art.). Beraz, *Uztaron* Giza eta Gizarte Zientzien arloak bere osotasunean lantzen badira ere, aldizkariaren erreferentzialtasuna ez da berdina jakintza-arlo guztietan, jakintza-arlo batzuei buruzko lanak ugariagoak baitira besteei buruzkoak baino.

Ikergaia *Uztaro* aldizkarian zentratu arren, Inguma datu-basea ere erabili dugu auzia testuinguru zabalagoan kokatzeko. Inguma, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, Udako Euskal Unibertsitateak sortutako Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea da. Bertan azken 35 urteotan unibertsitate-mailako zientzia eta jakintza-alar bakoitzean euskaraz ahoz eta idatziz ekoitzi denari buruzko oinarritzko informazioa eskaintzen da. Ingumaren helburua euskara batuaren arauak finkatzen hasi zirenetik gaurdainoko produkzio zientifiko osoa jasotzea izan da (unibertsitate-mailakoa eta euskarazkoa). Inguma Internet bidez kontsulta daiteke honako helbide elektronikoan: [www.inguma.org](http://www.inguma.org). Gure artikuluko datuak 2005eko urtarrilean Inguma datu-basean egindako bilaketetan oinarritzen dira.

## 1. Psikologia arloko artikulua

Inguma datu-basean katalogatutako 8.141 artikuluetatik 74 Psikologiari buruzkoak dira (hots, artikuluen % 0,9 soilik da Psikologiari buruzkoa). Psikologia arloko euskarazko produkzio zientifiko ez da, beraz, beste jakintza-arlo batzuetakoa bezain oparoa. Esate baterako, Pedagogia eta Hezkuntza arloan Inguma datu-basean 506 artikulua daude katalogatuta (hau da, % 6,2).

Bestalde Psikologia arloko idatzizko eta ahozko produkzio zientifikoa desorekatuta dagoela detektatu dugu. Psikologiaren inguruan idatziz ekoizitakoa % 27,5koa delako<sup>4</sup>. Ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko desoreka jakintza-arlo honen baitan interpretatu behar da, Inguma datu-basean ez baita halakorik igartzen. Hain zuzen ere Inguman, idatzizko dokumentu gehiago dago (% 56) ahozkoak baino (% 44).

Inguma datu-basearen arabera Psikologiako artikulua 13 aldizkaritan argitaratu dira: *Bat* (artikulu 1), *Ele* (2 art.), *Elhuyar aldizkaria* (1 art.), *Elhuyar Zientzia eta Teknika* (2 art.), *Euskera* (art. 1), *Fontes Linguae Vasconum* (2 art.), *Gogoa* (5 art.), *Hizpide* (2 art.), *Jakin* (5 art.), *Karmel* (3 art.), *Riev* (2 art.), *Tantak* (5 art.) eta *Uztaro* (43 art.). Beraz, *Uztaro* aldizkarian kontzentratzen da artikuluen % 58, eta beste artikulua guztiak gainerako 12 aldizkarietan sakabanatzen dira. Datu hauetan oinarrituz, *Uztaro* aldizkariaren erreferentzialtasuna euskaraz idatzitako Psikologiako artikuluetan erabatekoa dela baieztatu daiteke. Horra bada, atal honen azterketaren muina.

### 1.1. Epealdiak

*Uztaron* urte bakoitzean batez beste Psikologiari buruzko 3 artikulua argitaratu dira. *Uztaroren* urteko Psikologiako produkzioak urtero euskaraz argitaratzen diren Psikologiako artikuluen portzentaia handia bereganatzen du (ikus 1. taula).

---

4. Psikologia arloko idatzizko dokumentuen kopuru zehatzak hauek dira: 74 artikulua, 71 HAA (liburu-aipamenak 29, liburu-artikulua 37, hitzaurreak 5 eta ez dago edizio kritikorik), 24 liburu eta 9 itzulpen. Ahozko dokumentuen kopuruak hauek dira: 277 hitzaldi, 73 ikastaro eta 116 irakasgai. Bestalde Psikologia arloan 7 doktore-tesi aurkeztu dira. Guztira 671 dokumentu.

A	B	C
Urteak	Psiko. art.	Psiko. art. Uzt.
1983	1	-
1984	2	-
1985	1	-
1986	1	-
1988	2	-
1989	1	-
1990	1	1
1991	2	1
1992	1	1
1993	2	1
1994	7	3
1995	4	2
1996	4	3
1997	5	3
1998	3	3
1999	9	6
2000	7	6
2001	5	2
2002	9	6
2003	6	4
2004	1	1
Guzt.	<b>74</b>	<b>43</b>

**1. taula.** Psikologiari buruzko artikuluko guztiak eta *Uztarokoak*. A: Urteak. B: Psikologiari buruzko artikuluko guztiak Inguman. C: Psikologiari buruz *Uztaron* argitaratutako artikulukoak.

*Uztaroren* baitan Psikologiako artikuluen argitalpenean hiru une bereizten dira: 1990-1993, 1994-1998 eta 1999-2003<sup>5</sup>. Lehenengo urte-tartean (1990-1993) *Uztaron* Psikologiako artikuluko bakarra argitaratzen da urtero, guztira 4 artikuluko. 1994. urtetik aurrera, hain zuzen ere N. Balluerka Erredakzio Kontseiluan sartu zen urtetik aurrera, urtero 2 eta 3 artikuluko aditzera ematen dira. Guztira, 13 lan ekoizten dira garai horretan. Izan ere, N. Balluerka Psikologian doktorea da eta EHUKo Psikologia Fakultatean irakasle dihardu. 1999tik aurrera, X. Isasik, Psikologian doktorea eta EHUKo irakasleak, UEUKo zuzendari-kargua hartzen duenean, kasualitatez, edo ez hain kasualitatez, zuzenean eta zeharka eragindako sinergiengatik, *Uztaroren* Psikologia arloko urteko produkzioa hazi egiten da eta 24 artikuluko kaleratzen dira tarte horretan.

Aipatutako hiru uneak ez dira soilik urteko produkzioaren batez bestekoan antzeman. Beste irizpide batzuk erabilia ere antzeko zerbait gertatzen dela ikus daiteke. Adibidez artikuluko bakoitzean parte hartzen duen batez besteko egilekopuruari erreparatuta ondorio bertsua atera daiteke. 2. taulan argi geratzen da hirugarren epeko artikuluko eta egileen batez bestekoa altuagoa dela.

5. Sailkapen honetatik kanpo 2004. urtea geratuko litzateke, oraindik ez baitago nahiko perspektibarik jakiteko nola interpretatu urte horretako produkzioa. Ez dago jakiterik zerbait kointurara adierazten duen, ala beste dinamika baten abiapuntua ote den. Dena den guztira 2004an 2 artikuluko kaleratu ziren *Uztaron*, bigarrean 51. zenbakian. Azken hori ez dugu aintzat hartu gure azterketa 50. zenbakira heltzen delako.

A	B	C
Urte-tarteak	Psiko. art. BB.	Psiko. eg. BB.
1990-1993	1	1
1994-1998	2,8	2,14
1999-2003	4,8	2,54

**2. taula.** *Uztaron* argitaratutako Psikologiako artikulu eta egileen batez bestekoa.

A: Urte-tarteak. B: Urte bakoitzean argitaratutako artikuluen batez bestekoa.

C: Urte bakoitzean argitaratutako artikuluen batez besteko egileak.

Inguman katalogatutako Psikologia arloko artikuluen produkzio guztia aintzat hartuz gero, hau ikus daiteke: *Uztaro* aldizkariarekin definitutako hiru uneak, Psikologiako artikuluen produkzio osoan ere bereizten direla. Logikoa da hori gertatzea, *Uztarok* Psikologiako produkzioa kontzentratzen duelako, eta beraz, multzoari bere joerak transferitzea normalizat har daiteke. Dena den bi ñabardura egin behar ditugu: alde batetik, lehenengo tartearen hasiera 1983. urtean kokatuko litzateke (eta ez 1990ean), hau da, Psikologia arloko lehenengo artikulua kaleratu zen urtean. Argi dago, lehenengo epealdi horretan *Uztarok* ez zuela Psikologia arloko artikuluen produkzioan aldaketarik ekarri. Eta bestetik, Psikologiako artikuluetan parte hartzen duten egileen batez bestekoa *Uztaron* baino baxuagoa dela.

A	B	C
Urte-tarteak	Psiko. art. BB.	Psiko. eg. BB.
1983-1993	1,4	1,14
1994-1998	4,6	1,78
1999-2003	7,2	2,13

**3. taula.** Psikologiari buruzko artikulua Inguman. A: Urte-tarteak. B: Urte bakoitzean batez beste argitaratutako artikulua. C: Urte bakoitzean argitaratutako artikuluen batez besteko egileak

*Uztaron* Psikologiaren inguruan plazaratutako artikuluen % 46,51 egile bakarrak ekoitzi du<sup>6</sup>. Psikologia arloko artikuluen produkzio osoari erreparatuz gero (*Uztaron* argitara emandako artikulua kenduta), fenomeno interesgarri bat agertzen zaigu, hau da, artikuluen % 81,25 egile bakar baten lana dela<sup>7</sup>. Beraz, *Uztaron* artikulua argitaratzen dituzten egileen ekoizpen-ezaugarriak ezin dira parekatu beste aldizkarietan azaltzen direnekin, ez baitira berdinak. Kontuan hartuta alor akademikoan eta nazioarte-mailan Psikologia arloko lanak ekoizteko joera lankidetzaren bidezkoa dela, begi-kolpe batean ematen du Psikologia arloko lanak biltzen dituzten euskarazko aldizkari guztietatik *Uztaro* dela goi-mailako aldizkari zientifiko baten ezaugarriak hobekien betetzen dituenena. Baina zer dago benetan *Uztaroko* artikuluen idazketan aritzen diren autoreen lankidetzaren atzean? Irakasle eta zenbait ikasleren artean egindako lana, ikertzaile-talde baten emaitza, edota irakasleen dibulgazio-lana? Inguma datu-basean abiatutako datuetatik ezinezkoa zaigu une honetan galdera horiei erantzunik ematea.

6. *Uztaron* argitaratutako artikuluen egile/en kopuruari buruzko datu zehatzak hauek dira: 20 artikulua daude egile bakarrak ekoitzi (% 46,51), 9 artikulua 2 egile dituzte (% 20,93), 7 artikulua 3 egile dituzte (% 16,28), 2 artikulua 4 egile dituzte (% 4,65), 2 artikulua 5 egile dituzte (% 4,65), 2 artikulua 6 egile dituzte (% 4,65), azkenik, 7 egile dituen artikulua bat kaleratu da.

## 2. *Uztaroko* Psikologiako artikuluen egileak

Psikologia arloan artikulua argitaratu dituzten egileak 78 dira Inguma datu-basearen arabera. Horietatik 52 egilek artikulua bakarrik idatzi dute eta 26k bi edo gehiago. Ez da beraz, masiboa arlo honen masa kritikoa. Psikologia arloko egileek, oro har, denek elkar ezagutzen dute. Are gehiago lankideak dira. Adibidez, zeharkako adierazle bat erabiliz, Inguma datu-basean jasotako eposta helbidearena alegia, agerian geratzen da gehienak (% 80,7) EHUko irakasleak direla. Beraz, unibertsitateak Psikologia arloko idatzizko produkzio eta produktibitate zientifikoan eragin zuzena daukala argi dago.

Laburbiltzeko, Psikologia arloko artikuluen egile-taldea ez da oso handia, oso nukleizatuta dago, gunea Euskal Herriko Unibertsitatea da eta euskarazko artikuluen produkzioa erraz oratzeko modukoa da, 1983. urtetik 74 artikulua argitaratu baitira. Arloko edozein unibertsitate-adituk ezagutzeko moduko literatura da. Egia esan, idatzizko produkzio osoa Psikologian eta euskaraz, ezdeusa ez, baina txikia izan bada. Eta hori onerako izan daiteke, dokumentazio idatzia sakabanatzeko aukera gutxiago ematen duelako.

### 2.1. Aipuen azterketa

Aurrekari horiek guztiak presente izanik, *Uztaron* argitaratutako Psikologiako artikuluen aipuen azterketa egin dugu, adierazle horren erabilera oso arrunta delako aldizkari zientifikoaren ebaluazioa egiten denean. Aipuen zenbaketa egiteko ez dute balio ISIko datu-baseek, ezta IN-RECS izenekoak ere, nahiz eta bietan Psikologiako artikulua indizaten diren, euskarazko lanek ez dutelako tokirik. Beraz, aipuen eskuzko kontaketa egin dugu aldizkari-iturriak zuzen-zuzenean kontsultatuz<sup>8</sup>.

Lehenengo eta behin *Uztaroko* Psikologia arloko artikuluen arteko aipuak aztertu dira. Hau da, argitaratutako 43 artikuluek elkarren aipamenik egiten ote duten banan-banan begiratu, eta 4 aipu aurkitu dira, baina denak autoaipuak dira. Hots, artikuluen egileak (edo egileek) *Uztaroren* aurreko ale batean argitaratutako beren lanen erreferentziak dira. Datu honen esangura zein den zehaztea zaila da bi arrazoiengatik; batetik badagoelako arloko adituen artean autoaipuen esanahia-  
ren inguruan eztabaida<sup>9</sup>, eta bestetik, *Uztaroren* baitan autoaipu horiek zer islatzen duten ez baitugu batere garbi. Ez dakigu, *Uztaroren* kasuan, bertan argitaratutako lanek beste egileengan ez duten oihartzunik ala artikulua bakoitzak gai oso desberdinei buruz jarduten duen, eta beraz, gaietan jarraitutasunik ez dagoen. Adibidez *Uztaron* ludopatiari buruzko artikulua bakarrik dago, eta beraz, horren gaineko aipurik beste artikuluetan ez topatzea ez da harrizkoa.

---

7. Psikologia arloko artikuluen produkzioa (*Uztaroko* lanak kenduta): 26 artikulua daude egile bakarrik ekoizita (% 81,25), 4 artikuluk 2 egile dituzte (% 12,5) eta 2 artikuluk 3 egile dituzte (% 6,25).

8. Aipuak jasotzeko bi fitxa prestatu dira: bata artikuluen aipuak biltzeko eta bestea aztertutako aldizkariaren gaineko datuak jasotzeko.

9. Autozitek zer esan nahi duten eztabaidagai da gaur egun. Batzuek autoaipuak kondentzen dituzte lanaren gaineko aipuen ratioak puzteko erabiltzen direla uste baitute. Beste batzuek, aldiz, naturalizat hartzen dituzte, komunikazio zientifikoaren baitako ezaugarria dela defendatuz (Glänzel eta beste, 2004: 63)

Gainera, Psikologia hainbat arlotan bereizten da (psikologia soziala, giza portaera, metodologia, tratamendua, ebaluazioa, oinarriko psikologia, eta abar) eta produkzioa sakabanatzen da. Dena den, gure ustez, *Uztaron* badaude nolabaiteko harremana izan dezaketen gaiak, eta beraz, bete-betean ere ezin esan daiteke gaien sakabanaketa erabateko arrazoa denik edota gaien artean nolabaiteko jarraitutasunik ez dagoenik. Adibidez, haurren Psikologiaren inguruan *Uztaron* 9 artikulua argitaratu dira: “Haurraren adimenaren eboluzioa” (1990), “Sexu arteko desberdinketa haurren irudietan” (1991), “Aditz-komunztaduraren jabeakuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan” (1994), “*Haurrak, egitura txertatuen jabeakuntza eta mintzaide helduen eragina*” (2000), “Bakea eta gerra euskal haurren gogoetan” (2000), “Identitate nazionalaren garapena Euskal Herriko haur eta nerabeengan” (2002), “Talde-identifikazioa, barne-taldearekiko faboritismoa eta haute-mandako homogeneousotasun-maila testuinguru soziopolitiko desberdinetan garatzen ari diren haur eta nerabeengan” (2002), “Familiako giroaren kalitatea eta haurraren garapen psikologikoa Euskal Autonomia Erkidegoan: azterketa deskriptiboa” (2003), “Haur batek adierazitako egonezinenaren lekukoek agertutako jokaera prosozialean eragiten duten aldagaiak” (2004).

*Uztaroko* Psikologiako artikuluei egindako aipuen azterketa beste aldizkari batzuetara irekiz gero, emaitza are atsekabegarriagoa da. Psikologiako artikulua kaleratu dituzten gainerako aldizkarietan *Uztaroko* artikuluen aipuak aztertu dira, arreta berezia jarritz 2000tik 2003ra bitartean argitaratutako zenbakietan. Urte horiek aukeratu dira, ordurako Psikologia arloko artikuluen kopuru minimoa ekoizita dagoelako. Beraz, gure oraingo ikerketatik kanpo geratu dira: *Ele*, *Euskera*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Jakin*, *RIEV* (Psikologiari buruzko azken artikulua 2000. urtea baino lehen argitaratu zutelako), *Elhuyar aldizkaria* (*Uztaro* agertu baino lehenago aldizkaria hil baitzen) eta *Elhuyar Zientzia eta Teknika* (dibulgazioko aldizkaria delako eta hemen bilatzen ditugun aipu akademikoak ez dituelako).

A	B	C	D
Aldizkariak	Psiko. art. kop.	Psiko. art. urteak	Aipu-kop.
<i>Bat</i>	1	2001	0
<i>Ele</i>	2	1991-1994	-
<i>Elhuyar aldizkaria</i>	1	1983	-
<i>Elhuyar Zientzia eta Teknika</i>	2	1995-2001	-
<i>Euskera</i>	1	1994	-
<i>Fontes Linguae Vasconum</i>	2	1995-1997	-
<i>Gogo</i>	5	2001-2002	1
<i>Hizpide</i>	2	1996-2003	1
<i>Jakin</i>	5	1984-1989	-
<i>Karmel</i>	3	1985-1999	0
<i>Riev</i>	2	1986-1993	-
<i>Tantak</i>	5	1994-2000	2
<i>Uztaro</i>	43	1999-2004	4

**4. taula.** Psikologiari buruzko artikulua argitaratu dituzten aldizkariak. A: Aldizkariaren izena. B: Psikologiari buruz argitaratutako artikulua-kopurua. C: Artikuluen argitalpen-urteak. D: Aipu-kopurua.

*Bat Soziolinguistika Aldizkaria* hizkuntza-normalizazio eta glotopolitikari buruzko aldizkaria SEIk (Soziolinguistika Euskal Institutuak) argitaratzen du 1990etik. Aldizkaria Interneten kontsultagai dago (www.sortu.org). Web gunearen bilatzailea erabili dugu aipuen azterketa egiteko. *Uztaroren* aipu bakarra aurkitu dugu: 1993. urtean *Uztaron* argitaratutako hezkuntzari buruzko artikulua baten aipamena jaso da (ez hortaz Psikologiakoa). Beraz, *Bat* aldizkariak *Uztarori* egiten dizkion aipu guztiak aipu bakarrera mugatzen dira. Ulertzekoa da *Bat* aldizkarian Psikologiako artikuluen aipurik ez aurkitzea, baina ulertzekoa ote da *Uztaron* argitaratutako beste artikuluen aipurik ez egotea? Egia esan, *Bat* aldizkari zientifikoa den arren, iritzi-artikulu ugari ditu eta artikuluek maiz ez dute bibliografiarik eransten. Agian horregatik *Uztaroren* aipurik ez dago.

*Gogoia. Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza, Ezagutza, Komunikazio eta Ekintzari buruzko aldizkaria* da eta EHUko Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutuak (ILCLI) argitaratzen du 2001. urtetik. Ordutik *Gogoia* aldizkariaren 3 zenbaki 6 liburukitan argitaratu dira. *Uztaroren* aipu bakarra lehenengo zenbakian aurkitu dugu, hain zuzen autoaipu bat dena, egileak berak *Uztaron* 1995ean argitaratutako artikulua bati erreferentzia egiten diona.

EHUK argitaratzen duen beste aldizkari batean, *Tantak, Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkarian* Psikologiari buruzko 5 artikulua kaleratu dira, bi artikulua 1994ko 12. zenbakian agertu ziren, eta batean ere ez dugu *Uztaroren* aipurik aurkitu. Era berean 21. (1999) zenbakitik 31. (2004) zenbakira arte *Tantak* aldizkarian argitaratu diren 63 artikulua arakatu ditugu, eta bi artikulutan *Uztaroren* bi aipu aurkitu dira, biak autoaipuak dira<sup>10</sup>.

HABEk argitaratzen duen *Hizpide* aldizkarian Psikologiari buruz bi artikulua argitaratu dira. Lehenengoan (1996koa), artikulua egileak *Uztaroren* aipu bat jasotzen du, baina autoaipu bat da. Bigarrenean (2003) ez dugu *Uztaroren* aipurik aurkitu. Azterketa osatzeko 2000tik 2003ra bitartean argitaratutako 9 zenbakietan kaleratutako 64 artikulua arakatu dira *Uztaroren* bestelako aipurik aurkitzeko xedez. 2003ko 53. zenbakian *Uztaron* argitaratutako bi artikuluren aipuak topatu ditugu, baina Psikologiari buruzkoa ez den artikulua batean<sup>11</sup>.

Euskal Herrian argitaratzen diren aldizkariaren azterketarekin bukatzeko, *Karmel* aldizkariaren azterketa egin dugu. Markinako karmeldarren aldizkarian argitaratutako artikulua laburra da eta ez dute zerrenda bibliografikorik lanaren amaieran, eta gutxi batzuek erabilitako aparatu kritikoa oin-ohar laburretan aipatzen dute. Psikologiari buruzko *Karmel* aldizkariako artikuluetan, beraz, *Uztaroren* aipurik ez topatzea ez da harrizketa.

---

10. P. Elosuak eta A. Lopez-ek *Tantak* aldizkariaren 21. zenbakian (1999) argitaratutako artikuluan, egile biek *Uztaron* 1997. urteko 23. zenbakian argitaratutako lanaren erreferentzia ematen dute. Bestalde, A. Goñi, S. Palacios, S. Ruiz de Azua eta L. M. Zulaikaren artikuluan (*Tantak*, 28 (2002), 51-64. or.), egileetako batek, Zulaikak hain zuzen, *Uztaroren* 33. zenbakian kaleratutako artikulua aipua dator.

11. Bi aipuak dituen artikulua hau da: Kepa Larrea "Euskara ikasteko metodoen bilakaera 1956-1986" *Hizpide*, 53 (2003), 3-20. or. Eta bertan bi aipu hauek jasota daude: bata, P. Davila-k 1993an *Uztaroren* 9. zenbakian argitaratutako artikulua eta, bestea, A. Eizagirrek *Uztaro* aldizkariaren zenbaki berean argitaratutako lana.



Espanian argitaratzen diren aldizkarietan *Uztaro* aldizkariaren oihartzuna neurtzeko lagin bat prestatu dugu. Lagina 3 aldizkari osatu dute: *Psicothema*, *Análisis y modificación de la conducta* eta *Anales de Psicología*. Lehena Asturiasen argitaratzen da, bigarrena Valentzian, eta azkena Murtzian. Hiru aukeratu dira bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, CINDOCek prestatutako txostenean (*Índices de impacto de las revistas españolas de Ciencias sociales a partir del análisis de las revistas mejor valoradas por los pares*) Psikologia arloko adituek *Psicothema* eta *Análisis* 180 aldizkarietatik hoberenen artean sailkatu dituztelako. Zehazki, *Psicothema* ranking-ean lehena kokatzen da eta *Análisis* bosgarrena. Bestalde, *Anales de psicología* laginean sartu dugu bagenekielako *Uztaroren* aipu bat gutxienez bazeukala.

*Psicothema* ([www.psicothema.com](http://www.psicothema.com)) aldizkariaren 14.3 (2002)-16.4 (2004) zenbakietan argitaratutako 279 artikulua banan-banan aztertu ondoren, ez dugu *Uztaron* kaleratutako inongo artikuluren aipurik topatu —ez Psikologia arlokorik, ez hezkuntzakorik, ezta beste arloren bati buruzkorik ere—. Eraitza ikusita oihartzu ginen *Uztaroren* aipuak soilik topatuko genituela *Uztaron* gehien idazten dutenen artean, hau da, EHUko irakasleek prestatutako artikuluetan. *Psicotheman* 30 artikulua argitaratu dituzte EHUko irakasle edo ikertzaileek. Dokumentu-multzo horren azterketa egin dugu, baina horretan ere ez dugu aipurik topatu. Aipatu behar da gainera, 30 artikulua horietatik 17, *Uztaroko* idazleek ekoitzi dituztela.

*Análisis y modificación de la conducta* aldizkariak 2000. urtetik 2003. urtera bitartean argitaratutako 13 zenbakietan (115etik 128ra) ez dugu *Uztaroren* aipurik topatu aztertutako 115 artikuluetan. Egia esan, aldizkarian UPV/EHUko irakasle batzuen parte-hartzea masiboa bada ere, hain zuzen ere erredakzio-kontseiluko kide batzuen, *Uztaroko* egile gutxi parte hartzen du bertan.

*Anales de psicología* ([www.um.es/analesps/](http://www.um.es/analesps/)) aldizkarian, arestian aipatu den moduan, *Uztaroren* aipu bat detektatuta geneukan aipuen azterketa zehatza hasi baino lehen. Baina ez dugu aipu gehiago aurkitu, 16.1 zenbakitik 19.2ra argitaratutako 94 artikulua arakatu baldin badira ere. Aurkitutako aipua autoaipu bat da, *Uztaroren* 20. zenbakian argitaratutako lan bati eginikoa.

Laburbiltzeko, Espainian kaleratzen diren 3 aldizkari zientifikotan argitaratutako 488 artikulua aztertu dira *Uztaroko* artikuluen aipuak topatzeko, eta bere *eragin-faktorea* neurtzeko. Aipu bakarra topatu dugunez, aldizkariaren eragin-faktorea kalkulatzek ez du zentzurik<sup>12</sup>. Era berean gerta daiteke aztertu ez ditugun aldizkarietan aipuak egotea, baina egonik ere ez dugu uste aipu ugari izan daitezkeenik. Gure laginaren eraitza adierazgarria dela pentsatzen dugu, IN-RECS indizean 1993-2004. urteetako Psikologia arloko 20 aldizkarietan argitaratutako 5.388 artikulua bilduta daudelako, eta gurean 488. Hau da, *Uztaroren* aipuen azterketan banan-banan arakatu ditugu IN-RECSeK bere baliabide automatizatu guztiekin jasotako artikuluen % 9.

---

12. *Uztaroren* Psikologia arloko eragin-faktorea kalkulatzetik izan bagenu, gaiaren inguruan eginda dauden azterketekin konparaketak egin ahal izango genituzke (Buela-Casal, 2003), (Buela-Casal eta beste, 2004), (Bordons eta beste, 2002), (Glänzel eta Moel, 2002).

## 2.2. Espainiako Psikologia arloko egileak

Psikologia arloko egile euskaldunak, gehienak (edo guztiak) Hego Euskal Herrikoak direnez, Espainiako arloko adituen ezaugarriekin alderatuko ditugu segidan, komunean zer duten eta zer ez ikusteko. Horretarako, CINDOCek Espainiako aldizkarien eragin-faktorea neurtzeko prestatutako txostena erabiliko dugu: *Índices de Impacto de las revistas españolas de Ciencias Sociales (Biblioteconomía y Documentación, Psicología, Psiquiatría y Urbanística y Ordenación del territorio) a partir de análisis de las revistas mejor valoradas por los pares*<sup>13</sup> eta zehazki bertan Psikologiari buruz jasotako datuak.

Aipatutako txostenean aldizkarien garrantzia neurtzeko zenbait irizpide erabiltzen dira: bata, adituen iritziak, eta bestea, zer egiten duten, hots, artikulua non argitaratzen dituzten. Adituei (*pares* delakoei) inkesta bidez, beraien jakintza-arloan espainiar aldizkarien zerrenda bat baloratzeko eskatzen zaie lau kategorien arabera: A = oso ona eta funtsezkoa, B = ona, interesgarria, C = interes orokorrekoa eta D = interes berezirik gabea. Era berean aukera ematen zaie zerrendan agertzen ez den/diren aldizkaria/-k aipatzeko. Nonbait inork ez du, edo oso aditu gutxik aipatu dute *Uztaro* eta horregatik ez da zerrendetan agertzen. Bestalde, inkestak espainiar aldizkarien zerrendarekin batera beste bi itaun zituen: adituari eskatzen zitzaion azken hiru artikulua non argitaratu zituen zehaztea, baita zeintzuk ziren bere ustez arloko hiru aldizkaririk garrantzitsuenak, espainiarrak zein nazioartekoak.

Psikologia arloari dagokionez, 1.574 inkesta bidali ziren eta 513 erantzun jaso. Galdetegiaren lehenengo atalarekin (A, B, C eta D balorazioekin) espainiar aldizkarien 2003. urteko ranking-a osatu da. Zerrendako lehenengo laurak hauek dira: *Psicothema*, *Revista de Psicología General y Aplicada*, *Infancia y Aprendizaje* eta *Anuario de Psicología*.

Adituen azken hiru argitalpenak kontuan hartuta, aldizkarien beste zerrenda bat osatu da. Zerrendako lehenengo laurak honako hauek dira: *Psicothema*, *Revista de Psicología General y Aplicada*, *Anuario de Psicología* eta *Infancia y Aprendizaje*. Agerian geratzen da, beraz, Psikologia arloko espainiar adituek ez dutela atzerrian argitaratzeko ohiturarik. Are gehiago, hogeiko zerrenda horretan soilik hiru dira aldizkari atzerritarrak, eta lehena hamaikagarren postuan dago: *European Journal of Psychological Assessment*, bigarrena *Psychological Reports* (hemezortzigarren postuan) eta azkena *Personality and Individual Differences* (hogeigarren postuan).

Hirugarren galderari dagokionez (hau da, arloko espainiar zein atzerritar aldizkarien artean zeintzuk diren aldizkaririk garrantzitsuenak), adituek 17 aldizkari atzerritar eta 13 espainiar aukeratu dituzte. Lehenengo laurak hauek dira: *Psicothema*, *Infancia y Aprendizaje*, *Journal of Personality and Social Psychology* eta *Psychological Review*. Azken biak atzerriko aldizkaririk onentzat hartzen diren arren, espainiar adituek ez dute ohiturarik bertan argitaratzeko. Arestian aipatutako hiru hauek erabiltzen baitituzte: *European Journal...*, *Psychological Reports...* eta azkena, *Personality...* Are gehiago, aipatu diren atzerriko hiru aldizkari horiek, aldizkari onenen zerrendan honela agertzen dira: *European Journal...*

13. Iturria: <<http://www.cindoc.csic.es/info/informecs2003.doc>> [kontsulta-data: 2005-03-02]

hamaseigarren postuan, *Psychological Reports* ez dago jasota, eta *Personality...* hamalagarrena. Beraz, espainiarrek atzerrian argitaratzen dutenean, ez dute egiten beraiek hobekien baloratutako aldizkarietan, arruntagoak liratekeen horietan baizik.

Bukatzeko txostenak jakintza-arlo bakoitzeko lehenengo lau aldizkari espainiar garrantzitsuenen 2000 eta 2001. urteko aipuen azterketa egiten du. Psikologiaren kasuan *Anuario de Psicología, Infancia y Aprendizaje, Psicothema* eta *Revista de Psicología General y Aplicada* aldizkarietan argitaratutako 506 dokumentutan bildutako 17.067 aipu aztertzen ditu. Daturik nabarmenena hauxe da: aldizkariotan argitaratutako artikuluek batez beste 33,73 aipu dituztela, eta horietatik 2,36 espainiar lanei dagozkiela. Beraz, ondorioen atalean txostenaren egileak honela dio:

Sin embargo, los autores de las áreas de Psicología citan, en todos los casos sin excepción, mayoritariamente a Revistas. (...) En cuanto a la diferencia de citas a revistas españolas o extranjeras se observa también en todos los casos, un alto porcentaje de citas a revistas extranjeras, del orden del 87 al 89 % frente a un 10 % o 12 % de las citas a revistas españolas. Los datos muestran que los autores publican mayoritariamente en revistas españolas pero citan más los trabajos publicados en revistas extranjeras (Alcain, 2003: 158)

Beraz, Psikologian adituek Espainian, espainiar aldizkarietan argitaratzeko ohitura daukate baina atzerriko lanak aipatzen dituzte. Naziokideen lanak ez dituzte bereziki kontuan hartzen artikulua idazten dituztenean. Irakurri agian irakurriko dituzte, hori ezin da jakin, baina ez dituzte aipatzen. Beraz, espainiar adituek espainiar aldizkarietan argitaratzen dituzte artikulua, nahiz eta, zalantza gabe, atzerriko aldizkari batean argitaratuz gero, aipu gehiago jasoko luketen. Kontua da, zientziaren komunikazioaren ikuspegitik, Espainiako Psikologia adituek norentzat idazten ari diren hainbeste lan gaztelaniaz. Agian, erantzuna ez da bilatu behar zientziaren komunikazioaren esparruan, egileengan baizik, eta zehazki, curriculumaren garapen-gogoan. Askorentzat agian errazagoa izango da gaztelaniaz artikulua bat prestatzea, ingelesez baino. Eta ingelesez prestatuta ere, lehia dela eta, atzerriko aldizkarietan artikulua argitaratzea ez dute ziurtatuta, aldizkariaren adituen onarpena behar dute (*peer review*), eta argitaratuta ere, bidali zenetik urteak igaro daitezke. Hitz batean esateko, atzerriko argitalpenek curriculumaren *lodi*tea asko atzeratu dezakete.

Beraz, *Uztaro* aldizkarian parte hartu duten Psikologia arloko egileak aztertuta, eta bestalde arloko espainiar adituen ezaugarriak jasota, hauxe ondoriozta daiteke: euskaldun adituek, espainiar egileek beraien kideen lanak aipatzeko antzeko ohiturak dituztela. Alegia, egile euskaldunek, erdaldunek bezalatsu, aipu gehienak atzerriko lanei egiten dizkiete eta aipu bakar batzuk Espainiako *Psicothema* edo antzeko mailako aldizkarietara. Beraz, Psikologia arloan euskaraz ekoiztutako lanek aipurik ez jasotzearen arrazoia ez da euskaraz egotea, jakintza honen komunikazio zientifikoaren ezaugarrien ondorio izatea baizik. Hau da, gaztelaniaz idatzitako artikulua batek, Espainiako aldizkarietara onenean argitaratuta ere, ez dauka aipuak bermatuta, eta nazioarteko produkzioaren menpe dago, hots, ingelesezkoaren menpe.

### 3. Psikologia eta Historia arloen konparaketa

Orain arte *Uztaron* argitaratutako Psikologiako artikuluak aztertu dira. Ikusiko dugunez, Historia arloa adibidetzat hartuz, Psikologiari buruzko artikulu eta egileei buruz emandako zertzeladak ezin dira estrapolatu beste jakintza-arlo batzuetara. Beraz, jakintza-arlo bakoitzaren gaineko azterketa sektorialak egiteke geratuko liriteke, batzuen eta besteen arteko ezaugarri komunak eta dibergentziak finkatzeko. Atal honetan Psikologiako artikuluen ezaugarriak Historiakoekin kontrastatuko ditugu.

Hasteko Psikologiako eta Historiako<sup>14</sup> artikulu-kopurua alderatuta, biek eredu desberdinei jarraitzen dietela nabarmena da. Psikologia arloko 74 artikulu dauden bitartean, Historiakoak 939 dira. Eta lehenaren inguruan biltzen diren artikuluen egileak 78 badira, bigarrenak 301 ditu. Beraz, jakintza-arlo bakoitzaren inguruan biltzen den produkzio- eta egile-bolumena guztiz desberdina da. Lehenengo begiratuan ikus daiteke arlo bakoitzeko egileen arteko lankidetzeta oso desberdina dela, eta Psikologian halabeharrez kidezta handiagoa dagoela Historian baino.

#### 3.1. Artikuluak

Jakintza-arlo bakoitzeko artikuluen sakabanaketa oso desberdina da. Psikologia arloko 78 artikuluak 12 aldizkaritan aurkitu diren bitartean, Historia arloko 301 artikuluak 62 aldizkaritan aurkitzen dira<sup>15</sup>. Era berean Psikologia arloan *Uztarok* artikulu gehienak kontzentratzen dituen bitartean, Historia arlorako aldizkari honek ez du horrenbesteko erreferentzialtasunik, Historiako produkzioaren % 4 soilik bereganatzen duelako.

---

14. Psikologia jakintza-arloak hainbat atal dituen moduan, eta Psikologia esatean denak barneratzen ditugun moduan, Historia aipatzean ere, Historiurrea eta Arkeologia ere barneratzen dira Historiaren baitan, Geografia kanpo geratuz.

15. Historiari buruzko artikuluak kaleratu dituzten aldizkariak (SHU 9, 90, 92 eta 93 zenbakiekin egindako bilaketak): *Euskera* (319 artikulu), *Karmel* (89 art.), *Jakin* (74 art.), *Egan* (48 art.), *Uztaro* (38 art.), *Elhuyar Zientzia eta Teknika* (25 art.), *Hegats* (29 art.), *Vasconia* (21 art.), *Bidebarrieta* (17 art.), *RIEV* (16 art.), *Elhuyar ald.* (15 art.), *Larrun* (15 art.), *Oihenart* (14 art.), *Fontes Linguae Vasconum* (13 art.), *Geronimo de Uztariz* (13 art.), *Leyçaur* (13 art.), *Tantak* (10 art.), *ASJU* (9 art.), *Hermes* (9 art.), *Muga* (9 art.), *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria* (8 art.), *Musiker* (8 art.), *Bidasoa Ikerketa Zentroaren Koadernoak* (7 art.), *Boletín de la RSBAP* (7 art.), *Cuadernos de Etnología y Etnografía* (7 art.), *Ele* (7 art.), *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (6 art.), *Eusko Ikaskuntzen Kongresuak* (6 art.), *Bilduma* (5 art.), *Ernao* (5 art.), *Idatz & Mintz* (5 art.), *Lapurdum* (5 art.), *Mundaiz* (5 art.), *Sancho El Sabio* (5 art.), *Eleria* (4 art.), *Enseiukarreen* (4 art.), *Kobie: Paleoantropología* (4 art.), *Senez* (4 art.), *Zainak* (4 art.), *Bat* (3 art.), *Isturitz* (3 art.), *Munibe: Antropología-Arkeología* (3 art.), *Azpilkueta* (2 art.), *Ekaia* (2 art.), *Euskararen Iker Atalak* (2 art.), *Hika* (2 art.), *Huarte de San Juan: Geografía eta Historia* (2 art.), *Ikastaria* (2 art.), *Kobie: Etnografía* (2 art.), *Notitia Vasconiae* (2 art.), *Bitarte* (1 art.), *Azkoaga* (1 art.), *Boletín de la Academia Vasca de Derecho* (1 art.), *Cuadernos Vascos de Historia de la Medicina* (1 art.), *Eibarko Kuadernuak* (1 art.), *Gogoa* (1 art.), *Jentilbaratz* (1 art.), *Letras de Deusto* (1 art.), *Mediatika* (1 art.), *Trabajos de Arqueología Navarra* (1 art.), *Zer* (1 art.) eta azkenik, *Zutabe* (1 art.). Guztira 939 artikulu 62 aldizkaritan argitaratuta.

	A Psiko. kop.	B Histo. Kop.
Artikuluak	74	939
Aldizkariak	12	62
Egileak	78	356
<i>Uztaron</i> argitaratutako artikuluak	43	38
<i>Uztaron</i> artikuluak argitaratu dituzten egileak	59	35

**5. taula.** Inguma datu-basean Psikologia eta Historiako artikuluak eta egileak.  
A: Psikologia arloko datuak. B: Historia arloko datuak.

Hamar aldizkaritan Historiako artikuluen % 72 biltzen da, eta beste % 28a, 52 aldizkaritan barreiatuta dago. Euskaltzaindia Historiako artikuluko ekoizle nagusi gisa agertzen da, lanen % 33,97 *Eusker*a aldizkarian aditzera eman baita. Akademiak *Eusker*a, *Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* aldizkarian euskararen inguruko hainbat dokumentu argitaratzen ditu (ikerketa-artikuluak, lankidetzeta-hitzarmenak, akademiaren azken arauak, ziurtagiriak...), baita euskal historiari buruzko artikuluak ere; bigarren, *Karmel*, eliz tradizioko kultur aldizkaria da eta Markinako karmeldarrek argitaratzen dute; hirugarren *Jakin*, kultura, baina batez ere euskal kulturaren aldizkari orokorra; laugarren, *Egan*, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek literaturari buruz kaleratzen duen euskarazko gehigarria da; bosgarren, *Uztaro*; seigarren, zientzia eta teknologiaren euskarazko dibulgazioko aldizkaria den *Elhuyar Zientzia eta teknika*; zazpigarren, Euskal Idazleen Elkartek kaleratzen duen *Hegats* literatur aldizkaria; zortzigarren, Eusko Ikaskuntzaren Historia Sailak argitaratzen duen *Vasconia* izeneko kaiera; bederatzigarren, *Bidebarrieta*, *Bilboko Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria* Bilboko gaien ingurukoa; eta hamargarrena Eusko Ikaskuntzaren aldizkaririk tradizionalena: *Revista Internacional de Estudios Vascos* (RIEV).

Beraz, lehenengo hiru aldizkariak goi-mailakoak izanik ere, ez dira aldizkari zientifikoak, ezta aldizkari espezializatuak ere. Horretaz guztiaz gainera, batek formatu dibulgatiboa du (*Elhuyar Zientzia eta Teknika*). *Egan*, *Uztaro*, *Vasconia*, *Bidebarrieta* eta *RIEV* ohiko aldizkari zientifikoaren moldeetan ekoizten duten aldizkari bakarrak dira. Ondorioz, Historia arloko euskarazko artikuluen produkzioa sakabanatuta aurkitzen da.

### 3.1.1. Bradford-en legea

Historia arloko produkzioaren sakabanaketa eta Psikologiakoaren metaketa *Uztaroren* inguruan, horra bien arteko desberdintasun garrantzitsua. Baina zein da bietatik produkzio zientifikoaren ohiko moldeetara hoberen egokitutakoa? Duda gabe, Bradford-en legeari jarraitzen badiogu, Historia.

Bertram C. Bradford-ek, kimikaria eta Londreseko Zientzi Museoaren bibliotekariak, 1938an aldizkari zientifikoaren sakabanaketa-legea aditzera eman zuen. Legearen oinarritzko edukia hau izango litzateke: jakintza-arlo bateko aldizkari guztiak hartu eta bakoitzak gai horren inguruan argitaratutako artikuluen arabera ordenatuz gero, lan gehien kaleratu dituen goian jarritz eta behean gutxien kaleratutakoa, nukleoa aldizkari batek osatuko du eta ondoren *zona aldizkariak* bereizi ahal izango dira. Zonak bereizteko, aldizkarietako lanak gehitu behar dira nukleokoak

besteko dokumentuak eduki arte. Hartara, zenbait *zona aldizkari* egon litezke. Baina nukleotik zenbat eta urrunago, zonek orduan eta aldizkari gehiago edukiko dituzte<sup>16</sup> (adibidea 6. taulan).

Bradford-en legeak bere sasoian ez zuen oihartzun handirik izan baina gaur egun bete-betean onartzen da, ISIko datu-baseak hein batez lege horretan oinarritzen baitira edo behintzat hori islatzen baitute. Hau da, jakintza-arloek badituzte aldizkari batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direnak, eta horiek dira arloko artikulua gehien eta inpakturik handiena dituztenak. Pausoa sinpleki adierazi badugu ere, Bradford-en legearen eta ISIko aldizkariaren ranking-aren artean harreman estua dago.

Bradford-en legea aplikatuta ikus daiteke une honetan euskarazko Psikologia arloko artikuluen produkzioa heldu gabe dagoela, oraindik ez duelako gaiaren inguruan nahikoa dokumentazio bildu. Ondoko taulan ikusten denez, Psikologia arloak, nukleoa badauka, *Uztaro*, baina gaiaren inguruko aldizkariaren lehenengo zona guztiz osatu gabe dago. Historiak, aldiz, nukleoan *Eusker*a du eta aldizkariaren zona bi. Lehenengo zonan 6 aldizkari izango lituzke eta bigarreanean 55. Dena den, Historia arloko nukleoa, berez Historiakoa ez den aldizkariak osatzen du. Beraz, horrek ere jakintza-arlo horrek euskaraz duen heldutasun-maila (eza) adieraz dezake.

HISTORIA			PSIKOLOGIA		
A Zonak	B Ald.	C Art.	A Zonak	B Ald.	C Art.
Nukleoa	1	319	Nukleoa	1	43
1. zona	6	313	1. zona	12	31
2. zona	55	317	-	-	-

**6. taula.** Historia eta Psikologia arloko aldizkariak Bradford-en legearen arabera.

A: Aldizkariaren zonifikazioa. B: Aldizkari-kopurua. C: Artikulu-kopurua.

Laburbiltzeko, produkzioaren sakabanaketa jakintza-arloen berezko joera da, lehen pausua, arloaren garapenerako. Ondoren, produkzio-guneen arrazionalizazio bat etorri beharko litzateke, eta nukleoa jakintza-arloko aldizkari espezializatuek osatu beharko lukete.

### 3.1.2. Batez besteko bizitza

Burton eta Kleber-ek 1960an dokumentazio zientifikoaren batez besteko bizitza kalkulatzeko irizpidea honela finkatu zuten: «Tiempo durante el cual fue publicada la mitad de la literatura activa circulante» (Alía, 1998: 5). Normalean batez besteko bizitza aipu bibliografikoen batez besteko bizitzarekin osatzen da, baina gure kasuan hori ez dugu egiterik izan.

16. Zehazki Bradford-ek honela dio: «Therefore, the law of distribution of papers on a given subject in scientific periodicals may thus be stated: if scientific journal are arranged in order of decreasing productivity of articles on a given subject, they may be divided into a nucleus of periodicals more particularly devoted to the subject and several groups or zones containing the same number of articles as the nucleus, when the numbers of periodicals in the nucleus and succeeding zones will be as 1: n: n<sup>2</sup> ...» (cf. Ferreiro, 1993: 405-406).

Historia eta Psikologia arloko artikuluek batez besteko bizitza ere desberdina dute. Historiako artikuluek 11 urteko batez besteko bizitza dute eta Psikologiakoek 7 urtekoa. Hau da, 1993. urtetik Historiari buruzko artikuluen erdia kaleratu da, eta Psikologiakoak 1997. urtetik.

Batak zein besteak primeran islatzen dute Giza eta Gizarte Zientzietako artikuluen zientifikoen batez besteko bizitza. Giza Zientzietan ohikoa baita 10 urtetik gorako batez besteko bizitza-tartea eta Gizarte Zientzietan 10 urtetik beherakoa. Espainiar aldizkarietan, adibidez, Giza Zientzietako literatura zientifikoaren batez besteko bizitza 12,2 urtekoa da, eta Gizarte Zientzietakoa berriz, 6,7koa (Roman eta beste, 2005). CINDOCeko A. Roman eta M<sup>o</sup> D. Alcain-en arabera, Historiako artikuluen batez besteko bizitza 13 urtekoa da eta Psikologiakoena 6 urtekoa. Ez da beraz, berdin-berdina euskarazko eta gaztelaniazko artikuluen batez besteko bizitza, baina elkarrengandik ez daude oso urrun.

### 3.2. Egileak

*Uztaron* argitaratutako Psikologia eta Historiako artikuluen egileek ekoizpen-ezaugarri desberdinak dituztela antzeman dugu. Adibidez, *Uztaroko* 59 Psikologiako egileetatik 20k bi artikuluen edo gehiago sinatu dituzten bitartean, *Uztaron* Historiako artikuluen egileak 35 baino ez dira, eta horietatik 5 egileek soilik artikuluen bi edo gehiago idatzi dituzte. Datu horrek zerbait esan nahi zuelakoan geunden, eta jakintza-arlo bakoitzeko artikuluen egileengan *Uztaroren* garrantzia neurtu dugu ondoko taulan:

A Eg.	B Uzt. Hist. art.	C Hist. Art. guzt.	D Uzt. Hist. art. %
I	4	49	8,16
II	3	7	42,85
III	2	3	66,6
IV	2	2	100
V	2	17	11,7

**7. taula.** *Uztaron* Historiaren inguruan bi artikuluen edo gehiago argitaratu dituzten egileen taula. A: Egile horietako bakoitzari esleitutako erromatar zenbakia. B: Egileek *Uztaron* argitaratutako Historiako artikuluen kopurua. C: Egileek idatzitako Historiako artikuluen guztiak (*Uztaron* eta handik kanpo). D: *Uztaron* argitaratutako lanak ehunekoetan adierazita.

Historia (7. taula) eta Psikologia (8. taula) tauletako datuak ikusita hauxe ondoriozta daitezke: Historia eta Psikologiako egileen curriculumean *Uztarok* garrantzi desberdina duela. Bietan, *Uztaron* gehien idazten duten egileak aintzat hartu ditugu (bi artikuluen edo gehiago idatzi dituztenak), baina emaitza oso desberdina izan da. Badirudi Historiako egileek artikuluen argitalpen-lekua dibertsifikatu egiten dutela, eta *Uztaro*, salbuespenak salbuespen, beste aukera bat baino ez dela. Psikologian, aldiz, hori ez da gertatzen, eta *Uztaro* aldizkariak garrantzi handia du egileen euskarazko curriculumean.

A Eg.	B Uzt. Psiko. art.	C Psiko. art. guzt.	D Uzt. Psiko. art. %
I	9	9	100
II	4	5	80
III	3	7	42,85
IV	3	5	60
V	3	3	100
VI	3	3	100
VII	3	3	100
VIII	3	3	100
IX	3	3	100
X	3	3	100
XI	2	3	66,6
XII	2	3	66,6
XIII	2	3	66,6
XIV	2	3	66,6
XV	2	2	100
XVI	2	2	100
XVII	2	2	100
XVIII	2	2	100
XIX	2	2	100
XX	2	2	100

**8. taula.** *Uztaron* Psikologiaren inguruan bi artikulua edo gehiago argitaratu dituzten egileen taula. A: Egile horietako bakoitzari esleitutako erromatar zenbakia. B: Egileek *Uztaron* argitaratutako Psikologiako artikuluen kopurua. C: Egileek idatzitako Psikologiako artikulua guztiak (*Uztaron* eta handik kanpo). D: *Uztaron* argitaratutako lanak ehunekoetan adierazita.

Nolabait honek guztiak badu zerikusia Psikologia eta Historia jakintza-arloen berezko ezaugarriekin. Psikologiak Historiak baino “zientzia-itxura handiagoa” duenez, zientzia gogorren antza handiagoa du Historiak baino. Hau da, Psikologiari buruzko lanek aldizkari zientifikoetan soilik dute lekua; Historiakoak, aldiz, kultur aldizkari orokorretan ere argitara daitezke. Adibidez, gaur egungo euskarazko produkzio zientifikoaren testuinguruan artikulua honek: “Familiako giroaren kalitatea eta haurraren garapen psikologikoa Euskal Autonomia Erkidegoan: azterketa deskriptiboa”, *Uztaro* aldizkarian soilik du lekua. Aldiz, beste artikulua hau, *Uztaron* argitaratzeko modukoa izan arren, *Jakin* aldizkarian argitaratu zen 1995. urtean: “Estatua, gizartea eta historia. Alemaniako historiografia historizismotik historia sozialera”. Beraz, arlo bateko eta besteko lanek aukera desberdinak dituzte argitaratzeko orduan. Psikologiako artikuluen espazio naturala aldizkari zientifikoak den bitartean, Historiakoek interes orokorragoa izan dezakete eta kultura orokorreko aldizkarietan ere lekua izaten dute.

Era berean, Historiak zientzia-forma lausoagoa duenez, Historiari buruz idazten duten egileek ez dute zertan Historian lizentziatuak izan behar. Psikologia arloan *intrusismo* txikiagoa dagoela pentsatzen dugu. Adibidez, euskal pilota-jokoaren historiari buruz aditu batek idatz dezake artikulua, edo bestela eruditu baten lana izan daiteke. Psikologian hori gertatzea askoz zailagoa da. Hau da, *Prozesu psikolinguistikoak eta eskizofrenia* gaiari buruz “zaletu” batek nekez idatziko du



artikurik, eta idatzita ere aldizkari zientifikoaren erredakzio-kontseiluak onartzea oso zaila da.

## Ondorioak eta proposamenak

Euskarazko produkzio zientifikoa, hizkuntza gutxiagotu batean ekoizitakoa izanik ere, dokumentazio zientifikoaren ohiko moldeetara egokitzen da, eta hain zuzen ere horregatik, posible da euskarazko produkzio zientifikoaren azterketa bibliometrikoa egitea. Artikulu honetan horren adibide bat ikusi dugu Psikologia arloko euskarazko artikuluak aztertuz.

Euskarazko dokumentazio zientifikoaren azterketa bibliometrikoa behar-beharrezkoa da euskarazko produkzioaren diagnostiko egokia eta sustapen-politika zein geroko estrategiak diseinatzeko. Hau da, gainditu egin behar dira izaera biktimista duten azterketa kualitatiboak non aditzera ematen den euskarazko produkzioa oso urria dela eta produkzio guztia mugarriak aztertuta argitzen dela. Euskarazko produkzioa, hizkuntza gutxiagotu batean badago ere, ez da salbuespenezko produkzioa. Azken 35 urteotan asko hazi da eta normalizazioaren bidea egiten ari da. Horren erakusgarri da euskarazko produkzioak, hemen aztertu dugun kasuak erakutsi duen moduan, bibliometriako legeak betetzen dituela (hazkundearen legea, Bradford-en legea, eta abar).

*Uztaroren* azterketarekin, eta zehazki Psikologia arloko artikuluak eta aipuak aztertzean, bi gauzez ohartu gara: batetik, euskaraz eta gaztelaniaz ekoizten duten egileak uste baino antzekoagoak direla, eta bestetik, hizkuntza nagusiagotuetan erabiltzen diren irizpideak ezin direla hizkuntza txiki eta gutxiagotuetan zuzenean erabili, egokitu eta moldatu behar direlako. Izan ere, produkzio zientifikoak testuinguru oso desberdinak bizi ditu hizkuntzaren egoeraren arabera. Adibide bat jarriko dugu IHPI (*In-House Publication Index*) edo EAI (*Etxekoen Argitalpenen Indizea*) adierazlea erabiliz. EAI delakoa Alcalá de Henares-eko Unibertsitateko irakaslea den J. M. Campanario-k<sup>17</sup> 2004an aurkeztu zuen aldizkariak ebaluatzeko adierazle bibliometrikoko berri bat da. EAI erredakzio-kontseiluko kideek aldizkarian hartzen duten espazioa neurtzeko erabiltzen da. Hizkuntza nagusi batean ekoizten den aldizkariaren kasuan, EAI oso erabilgarria da ikusteko erredakzio-kontseiluko kideek aldizkaria erabiltzen ote duten beraien prestigio eta garapen profesionalerako edo ez. Horretarako, jakintza-arlo bateko aldizkari-multzoa hautatu behar da eta bakoitzaren EAI kalkulatu. Campanario-k *Social Science Citation Index*eko datuetan oinarrituz Hezkuntza eta Hezkuntzaren Psikologiaren arloko 33 aldizkariaren datuak aztertuz hauxe aurkitu du: badaudela aldizkari batzuk ez dutenak erredakzio-kontseiluko kideen artikulurik argitaratzen eta beste batzuk non artikuluen % 51 etxekoena den. Beraz, aldizkariaren funtzioa ezagutza zientifikoaren komunikazioa baldin bada ere, argi geratzen da batzuk erredakzio-kontseiluko kideen karrerak sustatzeko plataformak direla. EAIrekin kritikatzeko dena da erredakzio-kontseiluko kideek aldizkarian bertan argitaratzeko erraztasunak dituztela edota kideei ematen zaiela argitaratzeko lehentasuna kanpoko egileen aurrean.

---

17. Campanario-ren web gunean aurkitu ditugu hemen aipatutako erreferentziak: <<http://www.uah.es/otrosweb/jmc>> [kontsulta-data: 2005/05/13]

*Uztaron* argitaratutako Psikologiako artikuluetan Erredakzio Kontseiluko kide diren edo izan direnen eragina nabaria da. Psikologiako artikuluen % 20 beraiak ekoitzi dute, eta beraienak dira artikulurik luzeenak. Nola baloratu presentzia hori? Euskarazko produkzio zientifikoaren inguruan ikerkuntza enpiriko eta hausnarketa gehiago ez dauden bitartean edozein erantzun ematea oso arriskugarria izan daitekeen arren, hona hemen gure proposamena. Hasteko, *Uztaron* Erredakzio Kontseiluko kideei beraien artikulua argitaratzea ukatu/debekatuko balitzaike, Psikologia arloko euskarazko 7 artikulua gutxiago izango lituzke aldizkariak (beraz, guztira 37 artikulua) eta segur aski artikulua ez lirateke beste inongo aldizkarietan argitaratutako, Psikologiari buruz ez baitago *Uztaro* baino aldizkari espezializatuagorik euskaraz. Bestalde kontuan hartu behar da Erredakzio Kontseiluko kideek *Uztaro*ko artikuluekin ez dutela ospe berezirik lortzen, ezta bokazio unibertsaleko nazioarteko karrera profesionalik sustatzen ere, *Uztaro* ez baitago inon indizatuta. *Uztaro*ko Psikologiako artikuluek jasotzen duten aipu-tasa ez da baxua, zerokoa baino. *Uztaro*ko lanak ez dira behar bezala baloratzen CNEAI edo ANECAn, beraz, sei-urtekoak edo habitalitazioa lortzeko ez dute laguntzen, eta gainera oztupo izatera hel daitezke, lan horiek prestatu bitartean ezin direlako ISIn indizatuta dauden aldizkarietarako artikulua prestatu. Perspektiba horretatik Erredakzio Kontseiluko kideen parte-hartzea gaitzetsi baino, balioetsi beharko litzateke, beraien ekarpena oso garrantzitsua izan daitekeelako hizkuntza gutxiagotu batean argitaratzen den goi-mailako aldizkari zientifiko baten biziraupenerako. Bai eta zientziaren arlo bat euskaraz garatzen laguntzeko ere.

Beraz, Euskal Unibertsitatearen legeak aurreikusten duen Euskal Ebaluazio Agentzia sor dadinean hizkuntza bateko eta besteko produkzio zientifikoa ebaluatzeko orduan, eta batez ere euskarazko produkzioa ebaluatzeko unean, egokitu-tako eta sistematizatutako irizpideak beharko ditu. Hausnarketa-lan handia egin beharko du, ebaluazioaren bitartez euskarazko produkzioa sustatu nahi bada.

## Bibliografia

- Agirreazaldeggi, T. (2002): *Informazioarako dokumentazioaren oinarriak*, UEU, Bilbo.
- Alcain, M. D. (2003): *Índices de impacto de las revistas españolas de Ciencias Sociales (Biblioteconomía y Documentación, Psicología, Psiquiatría y Urbanística y Ordenación del Territorio) a partir del análisis de las revistas mejor valoradas por los pares*, CINDOC, Madril.  
<http://www.cindoc.csic.es/info/informecs2003.doc> [kontsulta-data: 2005-03-02]
- Alfá Miranda, F. (1998): "El historiador y las bases de datos", *Actas del XIII Congreso Internacional de la Asociación History & Computing "La historia en una nueva frontera"/ XIIIth International Conference of the Association for History & Computing "History in a new frontier"*, Toledo, Universidad de Castilla-La Mancha, (CD euskarrian), 1-10.
- Artetxe, K. (2003): "Inguma: Euskal Komunitate Zientifikoaren komunikazio eta ikerketarako lan-tresna", *Hizkuntza eta lurra*, Herria 2000 Eliza, Bilbo, 119-130.
- Bilbao, G. (2004): "Aldizkari zientifiko baten zuzentzailea: ergatibotik ortotipografiara, zientziaren bideetatik", *Senez*, 27.  
<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20041031/zuzenbilbao> [kontsulta-data: 2005-09-28]

- Bordons, M. eta beste (2002): "Revistas científicas españolas con factor de impacto en el año 2000", *Revista española de documentación científica (REDC)*, **25.1**, 49-72. [http://bddoc.csic.es:8080/basisbwdocs\\_rdisoc/rev0001/2002\\_vol25-1/2002\\_vol25-1\\_pp49-73.htm](http://bddoc.csic.es:8080/basisbwdocs_rdisoc/rev0001/2002_vol25-1/2002_vol25-1_pp49-73.htm) [Kontsulta-data: 2005-09-28]
- Buela-Casal, G. (2003): "Evaluación de la calidad de los artículos y de las revistas científicas: propuesta del factor de impacto ponderado y de un índice de calidad", *Psicothema*, **15.1**, 23-35. <http://www.psicothema.com/psicothema.asp?id=400> [kontsulta-data: 2005-09-28]
- eta beste (2004): "Factor de impacto de tres revistas españolas de Psicología", *Psicothema*, **16.4**, 680-688. <http://www.psicothema.com/psicothema.asp?id=3050> [kontsulta-data: 2005-09-28]
- Campanario, J. M. eta Rodríguez, C. (2004): "Studying the Competition for space in Academic Journals: IHPI (In-house Publication Index)", *Annual Meeting of ASIS "Managing and Enhancing Information: Cultures and Conflicts" (Providence, Rhode Island November 12-17, 2004)*. <http://www.asis.org/Conferences/AM04/posters/3.doc> [kontsulta-data: 2005-09-15]
- Echebura, E. (2002): "El sistema de sexenios en la evaluación de la actividad investigadora en el ámbito de la psicología clínica: una primera reflexión", *Análisis y Modificación de la conducta*, **119**, 391-404.
- Ferreiro, L. (1993): *Bibliometría (análisis bivalente)*, Eypasa, Madril.
- Frías, J. A. eta Romero Gómez, P. (1998): "¿Quiénes son y qué citan los investigadores que publican en las revistas españolas de biblioteconomía y documentación?", *Revista de Biblioteconomía y Documentación*, **1**, 29-53. <http://www.um.es/fccd/anales/ad01/ad0104.html> [kontsulta-data: 2005-09-28]
- Gil, J. eta Luciano, C. (2002): "A la calidad por *the quantity* (porque *la cantidad* no vale). Algunas reflexiones sobre los criterios de evaluación de la calidad de la investigación en psicología", *Análisis y Modificación de la conducta*, **119**, 431-454.
- Glänzel, W. eta beste (2004): "A bibliometric approach to the role of author self-citations in scientific communication", *Scientometrics*, **59.1**, 63-77.
- eta Moel, H. F. (2002): "Journal impact measures in bibliometric research", *Scientometrics*, **53.2**, 171-193.
- Gómez del Pulgar, G. (2004): "Análisis y comparación de cinco modelos de evaluación de revistas científicas", *Forinf@*, **25**, 7-21.
- Jiménez-Contreras, E. (2000) "Los métodos bibliométricos. Estado de la cuestion y aplicaciones", *Primer Congreso Universitario de ciencias de la Documentación*, 757-771. <http://www.ucm.es/info/multidoc/multidoc/revista/num10/paginas/pdfs/ejcontreras.pdf> [kontsulta-data: 2005-09-28]
- Pelechano, V. (2002): "Valoración de la actividad científica en psicología. Pseudoproblema, sociologismo o ideologismo?", *Análisis y Modificación de Conducta*, **119**, 323-362 .
- Pérez Alvarez-Ossorio, J. R. (2003): "Problemática de la información científica en lengua española", *Reflexiones y artículos de Documentación*, CSIC-CINDOC, Madril, 243-249.
- Reyes, M. J. eta beste (2000): "Revista científicas: determinación de necesidades y usos", *Revista española de documentación científica (REDC)*, **23.4**, 417-435. [http://bddoc.csic.es:8080/basisbwdocs\\_rdisoc/rev0001/2000\\_vol23-4/2000\\_vol23-4\\_pp417-436.htm](http://bddoc.csic.es:8080/basisbwdocs_rdisoc/rev0001/2000_vol23-4/2000_vol23-4_pp417-436.htm) [kontsulta-data: 2005-09-28]

- Román Román, A. eta beste (2005): "Cómo citan los investigadores de Ciencias Humanas y Sociales cuando publican en revistas españolas", *I Jornadas Españolas de Indicadores para la Evaluación de la Ciencia y la Tecnología (en el marco de las 9as Jornadas Españolas de Documentación, FESABID 2005)*, Madrilen apirilaren 14tik 15era, <http://www.cindoc.csic.es/info/pon/1.ppt> [kontsulta-data: 2005-09-28]
- Spinak, E. (1996): *Diccionario enciclopédico de Bibliometría, Cienciometría e Informetría*, UNESCO, Caracas.
- Zulueta, M. A. (2002): "Bibliometría y métodos bibliométricos", *Manual de Ciencias de la Documentación*, Pirámide, Madril, 117-136.



